



KONTZERTUETARAKO COVID-19ko PROTOKOLOA

COVID19ren egoera dela eta, Mutrikuko Musika Eskolak antolatutako kontzertuak ikusi ahal izateko **ezinbestekoa** izango da kontzertu bakoitzerako **gonbidapenak** eskuratzea (Online eskuratzeko aukera izango dira <https://gonbidapenak.udalmusikamutriku.eus> gunean).

Gonbidapena **pertsonala eta besterenezina** izango da, eta erreserba egitean eskatzen diren **harremanetarako datuak** eman beharko dira. Datuak **zuzenak eta fidagarriak** izan behar dira. Horrela ez balitz antolatzaileek gonbidapena baliorik gabe utzi dezakete.

Edozein arrazoiengatik (aforoa, etxeratze-agindua...) kontzertuaren ordua aldatu edo streaming bidez egin behar izanez gero, gonbidapen eskaeran jasotako datuak erabiliz jakinaraziko da.

Seguratsun neurriak bermatuko dira eta momentu guztietan antolatzaileen aginduak bete beharko dira. Hemen horien laburpena:

- Ez dute kontzertura etorri behar COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak duten edonork, ez eta COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.
- Momentu guztietan arduradunen aginduak jarraituko dira segurtasun neurriak betez.
- Sarreran, arduradun batek temperatura hartu eta gel-hidroalkoolikoa banatuko du.
- Sarrerek kontrolatuko dira eta horretarako, arduradun batek gonbidapenak baieztatuko ditu (gonbidapena paperean edo mobilean ekar daiteke)
- Arduradunek, bakoitzari dagokion eserlekura eramango dute. Ezin izango dira aulkiak mugitu ezta tokiz aldatu ere.
- Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da momentu guztietan.
- Irteera antolatua izango da, horretarako, arduradunen aginduak jarraituko dira.

Aipatutako arauak ez betetzeagatik, antolatzaileek kaleratzeko eskubidea izango dute.